

Duela lau urte, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeen aurretik, ELAk agiri bat zuzendu zien indar politikoaren lehendakariagaien. Agiri hartan Eusko Jaurlaritzara iristekotan hartu beharreko konpromiso batzuk jaso genituen. Aldi hartan ere ELAk aurreko Jaurlaritzaren ekintza juzkatu zuen, hain zuzen Patxi Lopezena, legislatura hasieran proposatu genizkion aldarrikapenei zegokienez.

Oraingoan ere, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak 2016ko irailaren 25erako deitu direlarik, beharreko jo dugu joan den legislatura honetan Eusko Jaurlaritzak egindako lanaren balorazioa egitea, eta hainbat neurri zehatz proposatzea, gure ustez hauek ezinbestekoak baitira euskal biztanleriaren bizi-kalitatea, enplegua eta justizia soziala hobetzeko.

Zoritzarrez legegintzaldi honetan jarraiema eman zaie Patxi Lopez lehendakariaren gobernuak krisian ezarritako politikei. Eusko Jaurlaritzak are gogorrako aplikatu ditu herritarrauk oro har pobretu eta zerbitzu publikoak hondatu dituzten politikak.

Duela lau urte bezala, ELAk dei egiten die alderdi politikoei agintera iristekotan bete beharreko konpromiso jakin batzuk beren gain hartitzen. Hitz eman dezatela neurri konkretu batzuk hartuko dituztela, ez arlo guztietan, baina gutxienik lan-ildo aski argia adierazten dutenak. Areago, kontutan izanik Espainiako Gobernuak murrizketa gehiago erabakiko dituela Europar Batasunarekiko akordioak oinarritzat hartuta. Horrenbestez, ELAk alderdi politikoei galdegiten die agertoki horretan zer egindo duten argi dezatela.

Baditugu gure proposamenak, horregatik igorri dizkiegu hautagai eta alderdi guztiei. Denborak esango du aintzat hartzen dituzten edo orain arteko politiken ildoekin jarraituko dugun.

**ELAk eta LABek manifestazioa deitu dute irailaren 20rako Gasteizen, Eusko Jaurlaritzak, Confebask, CCOOk eta UGTk adosturako iruzurraren aurka**

## **"ALDARRIKAPEN SOZIAL ETA SINDIKALA EZABATU NAHI DUTE"**

ELAren Nazio Batzordea, kongresuen arteko organo gorena, irailaren Sean bildu zen. Ezohiko bilera izan zen, eta gai-ordenean puntu bakarra: uztailaren 22an Gizarte Elkarrizketaren Mahai delakoan Eusko Jaurlaritzak, Confebask patronalak eta CCOO eta UGT sindikatuek negoziazio kolektiboaren inguruan adostutako ituna aztertu eta dagokion erantzuna antolatzea. Nazio Batzordeak iragan astelehenean gai honen inguruan adostu zuen adierazpenak jasotzen duenez, ezinbesteko da langile-klaseak akordio honi lan munduan zein kalean erantzutea. (Oharra: Astekaria honen bigarren orrialdeak onartutako adierazpena jasotzen du). Horregatik, LAB sindikatuarekin batera, ELAk protesta ekintza antolatu du irailaren 20rako Gasteizen. Protesta ekintza 10:30tan hasiko da Correos Plazan, eta Gasteizeko kale nagusiak zeharkatu ostean 11:30tan amaituko da Lehendakaritzaren egoitzaren aurrean.

Negoziazio Kolektiboko arduradun Joseba Villarrealak Nazio Kontseiluan azpimarratu zuenez, Eusko Jaurlaritzak, Confebask, CCOO eta UGTk lortutako akordioak bi helburu nagusi ditu. "Lehena, errebindikazio sindikal eta soziala indargabetzea; bigarrena, patronalari eta Eusko Jaurlaritzari bide ematea aukera ahal dezaten, euskal langileen botoari muzin eginda, akordioak norekin itxi, hots, solaskiderik otzan eta merkeena".

Villarrealen ustez onartezina da Jaurlaritzak euskal gehien go sindikalarekin agertu duen mespretxua, gutxiengoak babestutako akordioen alde egin baitu inolako lotsarik gabe. "Aldeen borondatearen autonomia errespetatzeak eskatzen du joko-arau demokratiko batzuk ere aintzat hartzea, erabakiak alde bakoitzaren gehiengoz har daitezen. Ez dago Lan Harremanen euskal esparrurik eremu sindikalean demokrazia errespetatzen ez bada".



**Irudian ELAren Nazio Batzordeak irailaren 5ean Bilbon egindako bilera**

ELAk negoziazio kolektiboaren arduradunaren ustez, Gizarte Elkarrizketa delakoaren baitan lortutako akordio honek mugimendu sindikalaren kontrabotere izaera berresten du. "Botere politikoaren jokabidea ikusirik hau da, ELAren ustez, erantzunik koherenteena, patronalaren eta kapitalaren interesen nahierara agintzen baitute. Ezinbesteko da lantokietan oinarritzko egitura sindikalak sendotzea, nortasun kolektiboak eta solidaritatea sendotzeko. Zenbat eta langile gehiago elkartu eta antolatu are eta errazagoa izango da patronalaren boterea mugatzea. Gisa honetako erasoen aurrean antolaketa sindikala da erantzun egoki bat emateko bermerik oneña".

*El Consejo Nacional de ELA, máximo órgano entre congresos, se reunió de manera extraordinaria el 5 de septiembre para analizar el acuerdo sobre negociación colectiva logrado por el Gobierno Vasco, Confebask, CCOO y UGT en la (mal) llamada Mesa del Diálogo Social*

*El acuerdo pretende eliminar la reivindicación social y sindical. Además es antidemocrático, pues va en contra de la mayoría sindical que han votado las y los trabajadores. ELA no acepta este nuevo fraude contra la clase trabajadora y se movilizará contra este pucherazo social*

**MARTES 20 DE SEPTIEMBRE. 10:30. GASTEIZ (PLAZA DE CORREOS). MANIFESTACIÓN CONVOCADA POR ELA Y LAB**

**MESA DEL PUCHERAZO SOCIAL  
IRUZURRIK EZ!**



**Declaración aprobada por el Consejo Nacional de ELA el 5 de septiembre del 2016**

# "TENEMOS MOTIVOS PARA INDIGNARNOS"



ELA denuncia los Acuerdos de la Mesa de Diálogo Social del pasado 21 de julio. Esos Acuerdos no han sido firmados para "blindar" y "desbloquear" la negociación colectiva vasca. Se han hecho con una doble intención: la primera, tratar de neutralizar la reivindicación sindical y social, y la segunda, facilitar a la patronal y al Gobierno Vasco que puedan elegir, despreciando el voto de los y las trabajadoras vascas, a quien quieran para cerrar acuerdos, al interlocutor más dócil y barato.

ELA quiere hacer llegar a la sociedad vasca en general y a la clase trabajadora en particular una contundente denuncia por la actuación del Gobierno Vasco. Nos parece intolerable que el Gobierno desprecie las mayorías sindicales vascas tomando partido por los acuerdos en minoría. El respeto a la autonomía de la voluntad de las partes no puede entenderse al margen de unas reglas de juego democráticas para que las decisiones se tomen por la mayoría de cada parte. No hay Marco Vasco de Relaciones Laborales sin respeto a la democracia en el ámbito sindical. El Gobierno Vasco, por boca de Arantza Tapia, Consejera de Desarrollo Económico y Competitividad, ha defendido que "hay que lograr que la voz de los trabajadores/as esté representada de verdad". Es obvio que la representación sindical que existe no le gusta. Esas manifestaciones son reflejo de una una posición propaternal sin matices, hasta el punto de que cada vez es más difícil distinguir si personas como la Consejera hablan como representantes de un Gobierno o de la patronal.

Los Acuerdos se han firmado con

una patronal que, sabedora de las ventajas obtenidas con las dos últimas reformas laborales, se niega a que la negociación colectiva sea útil para mejorar las condiciones de trabajo, para impedir la extensión de miseria laboral. Es más, Confebask pide otra reforma.

Los Acuerdos se firman con un Gobierno que extiende precariedad en sus ámbitos de responsabilidad y niega en esos mismos ámbitos el derecho a la negociación colectiva. Con un gobierno que impidió, de acuerdo con Confebask, que se aprobara en el Parlamento Vasco una ILP presentada por ELA para evitar el deterioro laboral en las subcontratas públicas.

Los Acuerdos se firman con un Gobierno y una patronal que comparten un modelo de sociedad injusto y un modelo de empresa en el que no tenga cabida la reivindicación, ni las organizaciones que reforzamos la identidad colectiva de la clase trabajadora. Gobierno Vasco y Confebask comparten que todos los instrumentos políticos sean puestos al servicio de la patronal: leyes, fiscalidad, subvenciones, bonificaciones, mesa de diálogo social, acuerdos en minoría...

Los Acuerdos los firma el Gobierno Vasco con una patronal y dos sindicatos que cierran en España convenios que impiden que los y las trabajadoras vascas podamos ejercer el derecho a la libertad sindical, decidiendo dónde y qué queremos negociar colectivamente. Confebask –a través de la CEOE– con CCOO y UGT, usan la reforma laboral de Zapatero para eliminar o condicionar la negociación colectiva en el ámbito vasco. A nadie se le escapa que tras esa

estrategia viene un grave empobrecimiento laboral y social. Nadie les obliga a hacer ese uso de esa ley, pero no dudan en hacerlo.

Los Acuerdos los firman dos sindicatos, CCOO y UGT, muy necesitados de financiación pública. Dos sindicatos a los que les es indiferente que ninguna de las decisiones que afectan a la clase trabajadora sea ni siquiera consultada con el movimiento sindical. La Mesa de Diálogo Social es una farsa que vive al margen de las decisiones antisociales que toman los gobiernos; las que han tomado y las que van a tomar (reformas laborales, de pensiones, presupuestos antisociales, recortes en sanidad y educación, fiscalidad injusta...).

ELA va a seguir poniendo todos sus medios al servicio de una negociación colectiva con contenidos, capaz de dar satisfacción a la lucha contra las nuevas fórmulas de precariedad que estamos sufriendo.

#### Con ese objetivo, ELA

- Reafirma el papel de contrapoder del movimiento sindical. Esta es, en nuestra opinión, la respuesta más coherente ante el papel que juega el poder político de plena subordinación a los deseos del mundo empresarial.

- Va a trabajar para reforzar las estructuras de base sindical en los centros de trabajo, para fortalecer identidades colectivas y la solidaridad. Agrupar y organizar cada vez a más trabajadores y trabajadoras es, hoy por hoy, el medio más eficaz para limitar el poder empresarial.

- Extrae conclusiones políticas respecto a la posición actual que desempeña el Gobierno Vasco. ELA defiende el Marco Vasco de Relaciones Laborales y Protección Social. Este Gobierno no cree en él; su alianza de intereses con Confebask le lleva a sentirse cómodo aplicando el marco español. ELA quiere recordar que el Gobierno y el PNV han desempeñado en otras épocas papeles diferentes al actual, y que echamos de menos. En 1994 defendieron en Madrid el derecho a la negociación colectiva en Euskal Herria ante otro intento de estatalización, logrando dar eficacia a las mayorías sindicales vascas y preservar nuestros convenios. 22 años después el Gobierno ha pasado a defender que el interlocutor preferente de la patronal y del propio Ejecutivo sea la minoría sindical que nos impide negociar aquí.

- Demanda a la clase política vasca que esté sensibilizada con los hechos que denunciamos, que pongan alta voz a la denuncia de este atropello, para que los problemas que preocupan a los y las trabajadoras vascas estén presentes en el debate político.

- Reitera su voluntad de trabajar para dotar a la mayoría sindical vasca de la máxima referencia sindical, social y política. La estrategia compartida entre el Gobierno Vasco y Confebask no admite ninguna ambigüedad.



# URKULLUK GUTXIETSI EGITEN GAITU



Ez lego ezer blindatu beharrik patronalak, CCOO et UGTk ez balute baliatuko Zapateroren erreforma guri negoziatzen galarazteko. *Elkarrizketa Sozialeko Mahaia* omen den horretatik datozen akordioek ez dute euskal negoziazio kolektiboa blindatzet, ezta hori bilatu ere. Madrilen erakunde horiek hitzarmen estatalak sintzen dituzte, esaterako Sukaldaritzakoa: soldatak Bizkaiko hitzarmenekoak baino %50 txikagoak dira. Bada, estatalizazioaren egileak dira Urkullurekin sinatzen ari direnak.

Euskal negoziazio kolektiboiari lehentasuna emateko Lanbidearteko Akordioa (LA) ez zen posible izan; kontua ez zen ELAren jarrera, Confebaskena baizik, *bake soziala exijitzen baitzigu erreformei zuku guztia ateratzeko*. ELAK ezetz esan zien. Gainera, ahaztu egiten da Confebaskek 2013ko uztailaren Urkulluren LA proposamenari eman zion uko zakarra. Patronalak esan zuenez, "negoziatio-eremu berriak irekitzea, nahiz indarraldia galdu izan ahal dutenen berreskura-pena ez da inola ere gatazkagai izango". Hau ELA-renzat onartzina zen. Nola egingo diogu prekaritateari aurre, gatazka alde batera utzita? Erantzun zabar hura gorabehera, Jaurlitzaren eta Confebasken arteko harreman pribilegiatuak aurrera egin zuen.

Eta zertan dira CCOO eta UGT sektoreetan? Egintzak azter ditzagun. ELAk Sektore-Akordio Marko (SAM) bat sinatu zuen EAEko merkatariatzako hitzarmen aplikazioa bermatzearren, Estatuko aurrean. Bada, akordioaren ondoren izan zen estatuko merkatariatzako negoziazio mahai batean CCOOk esan zuen: "Badakizue hona zertara etorri garen, euskal SAM hori akabatzera". Hala da, Lehendakari jauna, zure gobernuak legitimatu egiten ditu Madrilen bertoko erabakiak boikotatzen dituzten horiek; agian zure gobernuak bere esku dagoen negoziazio kolektiborekin gauza bera egin duelako: suntsitu. Honetaz ez du inork ezer esaten; ez sinatzaileek, ez LHKk ere. Guztiak bat dato ELAri erru guztia egotzen dion diskursoan.

Jaurlitzak beste zerbait sinestarazi nahi duen arren, ez da egia erreforma laboralen aurka egin zue-

nik. Zapateroren erreforma EAJren abstentzioari esker atera zen aurrera. Ez zitzaien axola. Egia da PPren erreformaren aurkako botoa eman zutela, baina orduan bere botoak ez ziren beharrezkoak; PPK nahiak zituen bereak.

Hau aintzat ez hartza eta ahaztea erreformen ondorio latzak, patronalaren blokeoa eta xantaia, langileen miseria hedatzen ari dela, eta alternatiba gisa aurkeztea -sinatutako akordioaren arabera- enpresarioak hautatzen duen gutxiengoarekin (%49, 25, 10 edo 5 dela ere) itxitako akordioak ez da inolako oztopoa estatalizazio eta prekaritatearentzat. Alderantzik, hauentzako bidea errazten du.

Eusko Jaurlitzaren eginbideak ELAri zer pentsatua ematen dio. Zer dela eta euskal gehiengo sindikaleko adierazten duen gutxiespena? ELAren ustez, Lehendakariak zigortu nahi duelako bere gustokoa ez den sindikalismo errebindikatiboa; honelakorik ez du onartzen. 2014ko irailean Jaurlitzak plazaratu zuen agiri batek zioen sindikatuok "alboratu ezineko ardua kuota" bat genuela: gobernuak ezartzen duten gizarte eredua geure egitea. Desberdintasun soziala areagotzen duen eredua. Beraz, euskal gehiengo sindikaleko gutxiespena agiri haren edukiarekin bat dator. Gobernuak zioen bere gizarte-ereduaren aurka agertzen diren eragile sozialak *salatu* beharra zegoela. Zein da orain bururatu zaien zigorra? Eragina ukatu nahi diete gehiengo demokratikoei (helburu honetan Confebaskekin bat dator neoliberalismoari aurre egiten dioten nortasun kolektiboak suntsitzeko) eta, agiriak zioen moduan, beren politiken aldeko sindikatu eta patronala diru publikoz finantzatu. Erabaki guztiz larri hauen aitzindari da Lehendakaria; horrela adierazten du botere ekonomikoaren interesekiko agertzen duen intolerantzia eta arbuioa. Ez dute autonomia sindikal eta soziala onartzen.

Lehengo lepotik burua. Confebaskek sindikatu izera ebatsi nahi izan zien ELAri eta LABi. Bere proposamenak ez zen aurrera atera, baina asmoa agerian geratu zen: oztopo sindikalak paretik kentzea. Orain Urkulluren gobernuak nahi du patronalak, enpresarioak edo administrazioak berak hautatzea, oztopo demokratikorik gabe, solaskiderik otzan eta merkeena,hots, nahi duena. Jaurlitzak eta patronalak badakite arau demokratikoak exijitzu gero enpresarioen alde bakarreko erabakitzeko ahalmena mugatuta geratzen dela, eta patronalari eta gobernuari garestitu egiten dizkiela akordioak. Hau ez da auzi tekniko bat, politika baizik. Nork aukeratzen du negoziatzeko eta hitzarmenak egiteko ordezkaritza sindikalak: langileek edota patronalak eta Gobernuak? Urkulluren *euskal eredu*, behintzat, langileok ez.

Urkulluren posizioa ez da harritzeko, Confebaske ematen dion babes politiko eta ekonomikoa ikusirik.

Bat dator, gainera, bere gobernuak prekaritatea area-gotzeko eta fiskalitatea ezer ez edo oso gutxi ordaintzen duten enpresa-errenten mesedetan taxutzeko duen ildoarekin. Nola koadratzen dira aurrekontua? Osasungintza, hezkuntza eta gizarte-prestazioak murriztuaz eta lehiaketa publikoan eskaintzarik merkeena hautatuz, azpikontrata askotan langileentzako miseria ezarriaz, hitzarmen estatalak baliatuaz lan-bal-dintzak okertzeko... Izan ere, enplegu gero eta kas-karragoa izan dadin eragozteko ez dute ezer egiten; gogora dezagun EAJk ukatu egin zuela ELAk Legebiltzarrera eraman zuen herritar ekinbidea, helburutzat azpikontrata publikoan lan-baldintzen gainbehera saihestea zuena. Gutxietsi egin gintuzten: sindikatu, ekinbideari babesera eman zioten 110.000 lagunak, eta eragindako langileak. Aurkako botoa eman ostean esan ziguten legea askoz hobea izan zitekeela, baina ez zigutela guri emango. Harrigarria. Beste kasu batzutan, 41 eguneko greba behar izan da Bilboko Arte Ederren Museoan baldintza miserableak amai zitezzen; bitartean, Jaurlitzak, Aldundiak eta Bilboko Udalak osatutako Patronatuak ezikusiarena egiten zuen soldatu negargariak zituztenekiko. Beste hainbat greba-rekin ere (TMB, Bizkaiko Erresidentziak, Trapagarango kale-garbitasuna, Gipuzkoako errepideak...) badirudi ez dutela zerikusirik.

Agian horregatik Lehendakariak ez du ELArekin bilerarik egin nahi. Gure eskariari erantzun zion esanez ez dituela gustoko sindikatuak bere politikei egiten dizkien kritikak. Bere gobernuak akordioak soilik Confebaskekin eta sindikatu jakin batzurekin -aurrekontu publikoen menpeko izanik bere alde daudenekin- egiten ditu. CCOOk eta UGTk duten finantzazio publiko beharra da Gizarte Elkarrizketarako Mahaian sinatutako bigarren akordioaren arrazoia. Akordio honen arabera finantzazio publiko selektiboa izango da gobernuari babesera ematen diotenentzat. Lehendakariak harreman klientelarra besterik ez du onartzen.

ELAk eta LABek asmatu egin dugu batera posizioa finkatu izanarekin. Hau albiste ona da, esanahi sindikal eta politiko handia duena. Jaurlitzaren eta Confebasken arteko aliantzaren aurrean ez dago badeaz-padako jarrerek hartzeo tarterik. Ondorioak atera nahi izatekotan, arlo sozialean agerian geratzen dira gobernuaren hautu politikoak, propaganda instituzional jasanezina eta bere diskurso hutsala gorabehera. Hauek ez dira plataforma batzuk buruz normalak izan daitezkeen desadostasunak; gobernu abertzale batzuk euskal langileen erabaki demokratikoa sabotatu nahi du, sindikalismo abertzalea baztertu. Erabaki hau bere lehentasunaren ondorioa ere bada: Madrilekin eta botere ekonomikoarekin konpontzea.

**Adolfo Muñoz Txiki, ELAko idazkari nagusia**

## DOS SEMANAS DE HUELGA EN LAS RESIDENCIAS DE BIZKAIA

ELA ha convocado dos semanas de huelga en las Residencias de Bizkaia, del 21 de septiembre al 5 de octubre. Esta nueva convocatoria –desde marzo a junio se realizaron un total de 18 jornadas de huelga que tuvieron un amplio y creciente seguimiento– tiene como objetivo acabar con la enorme precariedad laboral que sufren las 5.000 trabajadoras del sector. Gaizka Miguel y Soraya García, responsables de ELA en las Residencias de Bizkaia, denuncian que ni la Diputación –financiadora del servicio en un 70 %, así como la responsable de dotar de calidad asistencial a los vizcaínos y vizcaínas que hacen uso de los centros residenciales– ni las patronales del sector –Gesca, Lares y Elbe– han mostrado ninguna voluntad de llegar acuerdos. "No pararemos hasta lograr nuestros objetivos: las 35 horas semanales en un sector público privatizado, un incremento salarial digno y mejoras en caso de situación de baja, licencias y permisos. Vamos a luchar hasta el final, y para nosotras es muy importante comprobar como tras cada convocatoria de huelga son cada vez más las trabajadoras y las residencias que se suman a la lucha".



## LABURREAN / BREVES

### • Gran acuerdo en las peluquerías y centros de estética de Gipuzkoa

ELA, que cuenta con el 100% de representación en el sector, ha logrado un gran acuerdo en el sector de peluquerías y centros de estética de Gipuzkoa. El acuerdo, que afecta a más de 4.000 trabajadoras, tiene vigencia del 2008 al 2016. El acuerdo, entre otros aspectos positivos, recoge una subida salarial del 9,94% con atrasos desde el 2008 –para las trabajadoras que no han visto sus salarios incrementados en todo el periodo los atrasos ascienden a 6.500 € en la categoría media–; ultraactividad indefinida; blindaje frente a la inaplicación de condiciones... Este convenio supone un gran avance tanto para quienes tenían sus salarios congelados por varios años como para quienes padecían las consecuencias de la estatalización de la negociación colectiva.

### • ELA presente en el Foro Social Mundial

Una delegación de ELA acudió al Foro Social Mundial que se celebró en Montreal entre los días 9 y 14 de agosto. En este Foro, en el que participaron más de 50.000 personas, ELA quiso recalcar que la organización de los trabajadores y trabajadoras precarias es una de las prioridades para los sindicatos que pretenden dar una respuesta adecuada a los cambios impuestos en el empleo por los defensores del capital. ELA hace una valoración muy positiva de este Foro, en el que hubo espacio para la búsqueda de alianzas con diferentes sindicatos y organizaciones sociales en la lucha contra la precariedad, el cambio climático o los acuerdos comerciales como el TTIP y el CETA, por ejemplo.

### • ELA envía sus propuestas a los partidos políticos

Tal y como hiciera hace cuatro años, ELA ha mandado a los partidos políticos que concurrirán el 25 de septiembre a las elecciones al Parlamento Vasco un documento en el que se recogen diversos compromisos concretos a asumir en caso de llegar al Gobierno Vasco. En el documento ELA aboga por dar un giro en la política fiscal, y denuncia la política de recortes y ajustes que lleva a cabo el Gobierno Vasco.

### • La inhabilitación de Otegi es una decisión política, no judicial

El Tribunal Constitucional no ha admitido ni sigue a trámite el recurso presentado por Arnaldo Otegi en contra de la inhabilitación para presentarse en las elecciones al Parlamento Vasco que se celebrarán el 25 de septiembre. En opinión de ELA se trata de una decisión política y no judicial, lo que demuestra bien a las claras que el Tribunal Constitucional está a las órdenes del Gobierno español. Esta decisión es la prueba de que no existe separación de poderes en el Estado. Negar el derecho a concurrir en las elecciones a Arnaldo Otegi es un acto de anormalidad democrática que debe ser rechazado con toda contundencia.

### • Fallece un trabajador en Sigma Brakes

El 7 de septiembre falleció un trabajador en Sigma Brakes de Tudela. El trabajador, de 35 años, falleció atrapado por una carretilla elevadora. Desde 2010 ELA viene denunciando reiteradamente ante Inspección de Trabajo y medios de comunicación los sucesivos incumplimientos de la empresa en materia de prevención de riesgos laborales y la falta de voluntad

para mejorar las condiciones de trabajo en la planta. En ese sentido queremos recordar los dos incendios sucedidos a finales de 2015 en el plazo de 45 días, el segundo de los cuales obligó al desalojo de 60 personas; ante ello ELA denunció medidas de emergencia deficientes y situaciones de riesgo en la evacuación. Hay que destacar que como consecuencia de estas denuncias a día de hoy hay procedimientos sancionadores en curso.

Los últimos meses la plantilla ha llevado a cabo movilizaciones para denunciar las malas condiciones de trabajo y la falta de voluntad de la empresa para mejorar su situación. Las reivindicaciones en seguridad y salud laboral han sido un elemento central en las 16 jornadas de paros y huelga realizadas por la plantilla entre mayo y julio de este año en defensa de unas condiciones de trabajo dignas y de seguridad, y que lo siguen siendo a día de hoy.

Lo sucedido en Sigma Brakes es un claro ejemplo de que las muertes en el trabajo y la siniestralidad laboral son consecuencia directa de este modelo que permite la extensión de las condiciones de trabajo precarias. Las empresas en general priorizan su beneficio económico inmediato frente a cualquier otro aspecto, poniendo en riesgo la salud y la vida del conjunto de los trabajadores y trabajadoras.



## "ALDUNDIAK ETA ENPRESEK EZ DUTE GIPUZKOAKO ERREPIDEEN GATAZKA AMAITZEKO ASMORIK AGERTU"

Gipuzkoako errepideen mantentze-zerbitzuko langileek greba mugagabea daramate martxoaren lehenetik; hau da uneotan Euskal Herrian indarrean dagoen grebarik luzeena. Hain zuzen ere, euren egoera salatu eta gatazkaren bidezko konponbide bat eskatzeko, irailaren 7an agerraldi publikoa egin zuten Donostian.

Bertan 71 langile hauek bizi duten egoeraren errudunei argi adierazi zieten ez dutela etsiko sektorean bizi den prekarietatearekin amaitu arte. "Zerbitzuaren kudeatzailea –Gipuzkoako Foro Aldundia– zein zerbitzuaren esleipedunak –Otegi Gaztañaga, Asfaltos Urretxu, Ferrovial, Murias, Zerbitzu Elkartea, Ikusi eta Korrostel enpresak– ez dute orain arte inolako urratsik eman lan-gatazka honi amaiera emateko".

ELA sektorean duen arduradun Manu Tenak azpimarratzen duenez, "eskakizun nagusia lan-baldintzak arautuko dituen

hitzarmen bat lortzea da. Izen ere, lan-baldintzak ez dira egunearatu azken sei urteetan, eta gainera arriskuan daude lan-erreformenten ondorioz. Aldundiak edo Bidegik zuzenean kontratatzenten dituzten langileen lan berdina egiten dugu, baina soldatik %36 txikiagoak dira. Bestalde, lanaldiak 12 ordutik gorakoak dira, lan egiteko erritmoak gehiegizkoak, pertsonal urria dago eta prekarietatea nagusi da. Nahikoa arrazoi dugu aski dela esateko. Ez dugu etsiko prekarietatearekin amaitu eta lan baldintza duinak lortu arte".

*"Ni las empresas ni la Diputación están haciendo nada para solucionar el conflicto de carreteras de Gipuzkoa"*

**www.ela.eus / @ELAsindikatua / ELA-Facebook**



Barrainkua 13, Bilbao

Tel. 94 403 77 00

Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

**www.ela.eus**

**Franqueo concertado  
nº 08/207**